

Eusko Legebiltzarrak
pobrezia eta bazterketa
sozialaren aurkako Herri
Ekimena tramitera onartu
behar da

2019/01/30



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

EUSKO LEGEBILTZARRAK POBREZIA ETA BAZTERKETA SOZIALAREN AURKAKO HELA TRAMITERA ONARTU BEHAR DU

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak Eusko Legebiltzarrean pobrezia eta bazterkeria sozialaren aurkako Herri Ekimen Legegile bat sarrarazi du. Legebiltzarrean joan den urteko otsailaren 23an erregistratu genuen, eta abenduan jaso genuen behin betiko oniritzia. 51.000 sinadurak babestu dute ekinbidea.

HEL hau pobrezia eta prekaritatearen kontrako tresna bat dugu. Ez da kasualitatea diru-sarrerak DSBE mailaraino osatu beharreko egoeran dauden gehienak emakumeak izatea. Hauek soldatapeko enpleguan edo zaintza lanetan pairatzen duten desberdintasun eta diskriminazio latzaren ondorioz gizonezkoek baino diru-sarrera askoz txikiagoak jasotzen dituzte. HELak genero irakurketa du.

Eztabaida iritsi den lekuraino iristeko hainbat oztopo gainditu behar izan dugu. Besteak beste, Legebiltzarreko Mahaiak legezko epeak ez zituela bete; horrek sinadurak biltzeko epea arrazoizkoa baino gehiago atzeratu zuen. Esan dezakegu atzerapena ez zela kasuala izan; aitzitik, Urkulluren gobernu osatzen duten EAJk eta PSE-EEK denbora behar zuten DSBEaren erreforma (edo murrizketa) egiteko lege-proposamena idazteko.

Normalean Eusko Jaurlaritzak plazaratu ohi ditu bere legegaiak. Baina diru-sarrerak bermatzeko sistemaren erreforma egiteko beste bide bat hautatu zuten: EAJk eta PSE-EEK egindako lege-proposamena. Horrela legegai batek eskatzen dituen tramite guztiak saihestu zituzten. Halere, proposamena Legebiltzarrera apirilaren 27an eramane zuten, gure HELa erregistratu eta bi hilabete igaro zirenean.

Zergatik jokatu zuten horrela Jaurlaritzak eta bi alderdi horiek? Bada, nahi zutelako eztabaidaren abiapuntua euren murrizketa proposamena izatea, eta ez Eskubide Sozialen Kartarena, zeinak proposatzen duen gizarte-prestazioen hobekuntza nabarmena eta behar duten guztiei alokairu sozialeko bizilekua bermatzea. Hain zuten herritarren parte hartzea behin eta berriz ahotan duten gobernu honek eta alderdiak eztabaidan kolatu egin nahi izan zuten, txanda errespetatu gabe eta gure HELaren garapenari muzin eginda.

Joan den abenduaren 18an Eusko Jaurlaritzak HELaren aurkako irizpena eman zuen. Hau tramite formal hutsa da, hurrengo urratsa izango baita Legebiltzarreko osoko bilkuran tramitera onartu ala ez bozkatzea (hau da, lehenik bozkatu behar dena da ez testua bera, baizik eztabaidatzen hastea onartu ala ez). Tramitatzearen aurkako botoa demokrazia partehartzailearen aurkako beste eraso bat litzateke (izan ere, eskola inklusiboaren aldeko HEL ez baitzen onartu).

Otsailaren 7an Legebiltzarrak bozkatuko du HEL onartzen duen edo ez. Ukatuz gero, edukian sartu ere ez dira egingo. Botoa aldekoa bada, tramitea beste edozein legegarekin bezala hasiko litzateke (zuzenketak...). ELAk, aurreko paragrafoan esandakoaren arabera, eskatzen du onar dadila, demokraziaren hobe beharrez.

Jaurlaritzak oso argudio pobreak adierazi ditu aurkako iritzia ematean:

- "Eusko Jaurlaritzak gogoratzen du, lehenik, Legebiltzarra jada tramitatzen ari dela, Jaurlaritzaren aldeko irizpidearekin, lege-proposamen bat" EAJ eta PSE-EEren "taldeek batera aurkeztuā". Alegia, esaten dute gai horri buruzko ekinbide bat tramitatzen ari dela dagoeneko. Alabaina, esan den moduan, HEL lege-proposamena baino lehenago sartu zen; lehenago zegoelako argudioak ez du funtsik.
- Gainera, Jaurlaritzak esaten du lege-proposamenak aintzat hartzen duela "dagoen marko sozioekonomikoa, zeina ahaztu egiten duen ekinbide herritarrak". Errealitate sozioekonomikoa HELarekin batera doazen agirietan azaltzen da: gero eta herritar gehiago dago pobrezia arriskuan, eta gero eta jende gehiagori ukatzen zaio gizarte-prestazioak jasotzeko eskubidea, beharra izan arren. Halaber, DSBEaren zenbatekoan ezarritako mozketak handiak ere egiaztatzen dira (2008ko legea aplikatuz gero egun ordaintzen dena baino %28 handiagoa izan beharko litzateke), baita prestazioak kaskarrak direla ere. Gobernuak "marko sozioekonomikoa" aipatzen duenean esan nahi badu bere proposamenarekin gastua txikiagoa izango dela eta HELak aurrekontua gehitzera derrigortuko lukeela, bat gatoz. Baina esan dezatela argi; ez dezatela hitz nahasi edo hutsalik erabili.
- "Eusko Jaurlaritzak uste du diru-sarrerak bermatzeko egungo Legean edozein aldaketa egitekotan bermatu beharra dagoela, irizpide objektibo eta arduratsuetatik, egoera ekonomikorik okerreanean dauden pertsonak bizimodu duina izateko aukera eta bazterketa sozial egoerak saihestuz". Ez dakigu horrek esan nahi ote duen HELak ez diola heltzen arazoari irizpide objektibo eta arduratsuetatik. Oso larria iritziko genioke gure proposamena horrela deskalifikatzeko nahiari. Larria litzatekeen bezala sinestaraztea eremu honetako aurrekontu-sailak gehitzea ez dela arduratsua.
- "Azkenik, Eusko Jaurlaritzak ohartarazten du HELak etxebizitzaren inguruko hainbat neurri proposatzen duela, eta hauek ez dagozkiola erreformatu nahi den legeari, baizik Etxebizitza Legeari". Hau irakurrita, bi aukera daude: Ez dakite zertaz ari diren (HELak bi legeren erreforma bilatzen du, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarena eta Etxebizitzarena; hala adierazten da zioen azalpenean eta berariaz proposatzen da testu artikulatuan), edo gezurretan ari dira. Ez dakigu zer den okerragoa.

DSBEaren zenbatekoa: Egoera eta egin diren proposamenak

2008ko Legeak ezartzen du DSBEa LGSaren %88a izango dela, eta pentsiodunek LGSaren %100 adineko DSBEa jasoko dutela (atal honetan aipatuko dugun zenbatekoa bakarrik bizi den pertsonak jasotzen dutena da). Haatik, lege hori ez da betetzen:

- Batetik, Patxi Lopezek %7ko murrizketa ezarri zuen gizarte-prestazioen zenbatekoan (eta murrizte honi eutsi egiten zaio, urtea joan, urtea etorri, aurrekontuetan).
- Bestetik, Eusko Jaurlaritzak azken urteetan DSBEari ez dio LGSaren igoera aplikatu.
- Bi neurrien ondorioz 2019an DSBEaren zenbatekoa 2008ko legean ezarritakoa baino %28 txikiagoa da.

Ondoko koadroan ikus daitekeenez, Eusko Jaurlaritzak EH Bilduri 2019ko aurrekontu-proiektuaren negoziazioan egin zizkion proposamenak kontinuistak dira, izan ere zenbatekoa oso murriztuta baitago 2008ko legearekiko. Areago, esan daiteke adar jotzea izan dela, gobernuaren azken proposameneko zenbatekoak (667 euroko DSBE orokorra eta 784 eurokoa pentsiodunentzat, egundoko ahalegina eginda iritsi zitekeen gehienekoa omen zena) ia bat bait zetozen EAJren eta PSE-EEren lege-proposamenarekin (660 euroko DSBE orokorra eta 785 eurokoa pentsiodunentzat).

ELA eta Eskubide Sozialen Karta osatzen dugun beste organizazio sindikal eta sozialok aspaldiko urteetan salatu ditugu murrizketak, eta horien aurka mobilizatu gara. Gogoratu beharrekoa da DSBEaren zenbatekoa, 2008ko legearen arabera, 2019an 903 eurokoa izan beharko litzatekeela (hamabi pagatan, hots, LGSaren %88), eta 1.050 eurokoa pentsiodunentzat (LGSaren %100).

Eusko Legebiltzarrera eraman dugun Herri Ekimen Legegileak ezartzen du DSBEaren zenbatekoa LGSaren %100 izan behar dela (beraz, kolektiboen artean ez dela desberdintasunik egin behar), hau da, 1.050 euro hamabi pagatan.

DSBEaren ZENBATEKOA EUROTAN

	2018	2019 (AURREKONTU PROIEKTUA)	2019 (EJ-REN AZKEN PROPOSAMENA)	2019 (EAJ-PSE LEGE PROPOSAMENA)	2019 (2008KO LEGEA)	2019 (HEL)
OROKORRA	644	659	667	660	903 (LGS %88)	1.050 (LGS)
PENSIODUNAK	732	749	784	785	1.050 (LGS)	1.050 (LGS)

Azkenik, ELAk uste du ikuspuntu demokratikotik ez litzatekeela onargarria izango Eskubide Sozialen Kartaren HEL tramitatzeko aukera arbuiatzea. Ez dugu onartuko pikutara bidaltzea haren aldeko 51.000 sinadurak, edukiak eztabaidatu ere egin gabe.

Otsailaren 7an Legebiltzarrean bozkatuko da hau. Tramitera onartu ez eta Jaurlaritzak HEL paretik kendu nahi badu bere lege-proposamena sartzeko, ez guke bere jokoan sartu beharko. Talde progresistek hartu beharko zuten erabaki bat EAJ eta PSE-Eeren legezko proposamena guztiz arbuiatzea, horren negoziatioari uko egiten.

Bilbo, 2019ko urtarrilaren 30a